

Laudioko krosa



Urtero azaroaren bukaeran/abenduan
Ellakuriko zelaietan (Laudio)

Orain arte hogeita hamar ediziotik gora antolatu dira, eta horri esker, Laudioko krosa kategoria guztietako krosleri onenentzako ezinbesteko hitzordua da.

Ia mila korrikalari inguruk parte hartzen dute urtero Ellakuriko zelaietan jokatzeko diren probetan.

Informazioa

1985ean, errepidea ahaztu eta kategoria guztientzako kros proba bat egiteko erabakia hartu zen, eta urte horretako otsailean antolatu zen Laudioko lehenengo krosa. Ellakuriko kirolgunean diseinatu zen lehenengo zirkuitua, eta gaur egun hasierako ibilbidea aldatu bada ere, zenbait zati berdinak dira oraindik.

Araban eta baita Euskadin ere klasiko bihurtzeko asmoz sortu zen kros hau. Hirugarren edizioan nazioarteko izaera eman zitzaion, eta geroztik, gorako bideari eutsi dio beti.